

# Hizkuntza eta kultura aniztasuna Bilboko eskoletan. Euskararen erabileran eta euskal kulturaren praktikan eragiten duten faktoreak

HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien VII. Edizioko  
**BIGARREN SARIA (2014)**

**Naiara Berasategi**

*Psikologia Sozialean doktore. UPV/EHU - Euskal Herriko Unibertsitatea*  
naiara.berasategi@ehu.es

Sarrera-data: 2014-10-31 / Onartze-data: 2014-11-28

**Laburpena.** Egungo gizarteetan, geroz eta ohikoagoa da, egoera eleaniztun eta kultur aniztaz topatzea. Oro har, mundu mailako ikuspegitik gizarteak gero eta pluralagoak dira eta gaur egun nekeza da elebarkartasunaz edo kultur bakartasunez hitz egitea; nahiz eta errealtateak askotarikoak diren, geroz eta gehiago gizarteak ere ele eta kultur anizdunak direlako. Testuinguru horretan, Ikerketa lan honen nahia da, ikasleen praktika linguistiko (euskara, espainiera eta beste hizkuntza) eta kulturalak aztertzea da. Zehatzago, euskararen erabilera eta euskal-kultur praktika nolakoak diren aztertu nahi da, eta praktika horietan zein faktorek eragiten duten, baita etorkizunerako hizkuntza eta kultura plangintzarako egokiak izango diren bideak urratzea ere. • **Hitz-gakoak:** *Hizkuntza-kultura aniztasuna, eskola kultur anitza, euskararen erabilera, euskal kultur praktika.*

**Abstract.** In today's society it is becoming increasingly normal to come across multilingual situations and plural cultures. On the whole, from a global perspective societies are becoming increasingly plural, and today it is difficult to speak about monolingualism or cultural isolation; even if realities are diverse, because societies too are becoming more and more linguistically and culturally diverse. In that context this piece of research sets out to study students' language practices (Basque, Spanish and other languages) and cultural practices. More specifically, it aims to examine what Basque use and Basque cultural practices are like and see what factors influence these practices, and thus pave the ways for what would be appropriate language and cultural planning in the future. • **Key words:** *Language-culture diversity, multicultural school, Basque use, Basque cultural practice.*

## SARRERA

### I

Gaur egun, kalkulu gehienen arabera, 6.000 hizkuntza inguru hitz egiten dira munduan. Kopuru hori zehaztea, ordea, auzi korapilatsua da, hizkuntza asko eta asko dokumentatu gabe daudelako, eta gainera, sarritan ez delako batere samurra hizkuntzen eta dialektoen arteko mugak ezartzea (Amorrortu et al., 2004). Skutnabb-Kangasen (2000) kalkuluen arabera, ahozko hizkuntza bat garatu duten komunitate askotan eta askotan, oso litekeena da keinuko hizkuntza bat ere garatu izana. Hortaz, 6.000 hizkuntza inguru ez, baizik eta 11.000 hizkuntza inguru leudeke munduan, keinu-hizkuntzak kontuan hartuz gero. Nolanahi ere, hizkuntza-aniztasun hori arrisku bizian dago, hizkuntza gehienak (%95) gutxituak direlako, alegia, beren komunitatean ere beste hizkuntza handiagoen menpe edo itzalean, ukipen-egoera ezegonkorrean, bizi direlako. Skutnabb-Kangas (2000) ordea, hizkuntzen desagertzeaz baino, hizkuntzen erailteaz ari da. Alegia, salbuespenak salbuespen, hizkuntzak ez dira berez hiltzen, baizik eta gizakiaren zenbait ideologiaren, erabakiren eta ekintzen ondorioa dira hizkuntzen desagertzeak.

Hizkuntzen bizi-iraupena gehienetan aniztasunarekin lotuta dago zuzen-zuzenean. Hizkuntzek irauten duten neurri berean hizkuntza-eta kultura-aniztasuna bermatuta egongo dira. Crystal-en (2007) arabera, hizkuntzen aniztasuna animalien eta landareen aniztasuna defendatzen diren modu berean defendatu behar da. Autore honen arabera, uniformetasunak ez bezala, aniztasunak espezieei luzaro irauteko aukera ematen die. Alegia, aniztasun gabe, dela animaliei edo landareei dagokionez, dela hizkuntzei eta kulturei dagokionez, gizateriak ez du aurrera egingo: aniztasun handieneko ekosistemak dira indartsuenak. Skutnabb-Kangas (2000) urrutirago doa, eta hizkuntza-aniztasuna balio duen zerbait ez, baizik eta beharrezkoa den zerbait dela aldarrikatzen du.

Hizkuntza eta kultur-ukipen egoera Euskal Herrian (EH) ez da berria, urte asko daramatza euskarak espainierarekin eta frantsesarekin batera bizi-irauten. Egoera honetan hizkuntza berriak ere sartu dira, eta Euskal Herria aniztasun horren adierazle ere bada. Etorri berrien kopurua gero eta handiagoa da, eta nahiz eta oraindik beste zenbait lurraldeekin konparatuz baxua izan (Katalunia, esaterako), hizkuntzen eta kulturen presentzian eragin nabaria du. EHko kaleetan, euskara, frantsesa eta espainiera ez ezik, bestelako hizkuntzak ere entzuten dira: wolofera, errumaniera edo tamazight, adibidez. Uranga eta besteek (2008) egindako ikerketan 100 hizkuntza zenbatu dira Nafarroa eta EAEn (espainiera, frantsesa, ingelesa eta portugezaz gain). Hortaz,

---

***Hizkuntzen bizi-iraupena gehienetan aniztasunarekin lotuta dago zuzen-zuzenean. Hizkuntzek irauten duten neurri berean hizkuntza- eta kultura-aniztasuna bermatuta egongo dira. Bide horretan garrantzitsua izango da eskoletatik hizkuntza gutxituekiko zein kultura gutxituekiko begirunean oinarritutako gizarte eleaniztun baterako ikuspegia sustatzea.***

***EHko kaleetan,  
euskara,  
frantsesa eta  
espainiera ez  
ezik, bestelako  
hizkuntzak ere  
entzuten dira:  
wolofera,  
errumaniera edo  
tamazight,  
adibidez.***

datu hauek ere garbi adierazten dute lurralde hauetan dagoen hizkuntza aniztasuna. Egoera honetan, euskarak iraun dezan nahi bada, eta bestelako hizkuntzak ere bere presentzia izan dezaten nahi bada, horretarako bideak urratu beharko dira

Euskal-eskola ere aniztasun horren adierazle da, azken urteetan ikasle etorri berrien bilakaera nabaria izan da 34.921 izanik ikasle horien kopurua (Eustat, 2012-2013 ikasturtea), eta ezin uka eskola ere erronka handi baten aurrean dagoela. Euskararen normalizazioaren bidean oraindik ere egiteko handia du eskolak, ikasleak elebidunak (eta eleanitzak ere) izan daitezten. Hortaz, garrantzitsua izango da bide horretan plangintza, proiektu, programa... egokiak garatzea, benetako elebitasun hori lortzeko bidean. Bestalde, etorri berrien benetako integrazioa gerta dadin, ezinbestekoa izango da etorri berriek bertako hizkuntzak barneratzea, baina, aldi berean, beraien hizkuntza eta kultura ere neurritan batean mantenduz. Eta hori sustatzeko pausoak eman beharko dira.

## **AURREKARI TEORIKOAK**

**I**  
Gizarte inguru ezberdinetan, portaera linguistiko-kulturalak azaltzeko egin dira hainbat ikerketa. Bide horretan autore asko izan dira, portaera hauek azaltzeko nahiarekin eredu desberdinak garatu dituztenak. Baina gure kasuan itsaso zabal horretatik eredu batzuk baino ez ditugu aukeratu, ikerketa enpirikoa aurrera eramateko diseinatu dugun Eredu Teorikoa osatzeko baliagarriak izan direnak. Nazioarteko mailan proposatu diren eruedetan, batzuek ikuspegia bereziki alderdi psikosozialetan jarri dute (Lambert, 1974; Hamers & Blanck, 1983). Beste autore batzuek alderdi psikopedagogikoetan (Mackey, 1976; Naiman eta besteak, 1978; Gardner, 1985; Skehan, 1989; Gardner & McIntyre, 1993). Badira ere autoreak atentzioa bereziki ikuspegi soziologikoetan jartzen dutenak eta hizkuntza gutxiaren biziberritzea helburu dutenak (Fishman, 1991).

Euskararen erabilera eta ezagutza aztertzeko eredu teorikoetan, autore batzuk bereziki aspektu psikosozialak aztertzen dituzte (Sánchez Carrion, 1987; Arratibel, 1999; Garcia, 2001). Beste batzuk ikuspegi psikopedagogikoko alderdiak (Etxague, 1994 eta Luke, 2004). Badira ere, autoreak ikuspegia gehiago alderdi soziolinguistikoetan jartzen dutenak (Azurmendi eta besteak, 1996; Larrañaga, 2008; Martínez de Luna & Suberbiola, 2008). Azkenik, badira ere autoreak hezkuntza eleanitzak konparatzeko eredia eskaintzen dutenak (Cenoz, 2008).

Eredu desberdinetan erabiltzen den ikuspegiaren arabera azpimarratze desberdinak egiten dira:

- Ikuspegi soziopsikologikotik: alderdi soziodemografikoak eta sare soziala azpimarratzen dute.
- Eskolarekin erlazionatzen diren alderdiak ere azpimarratzen dira zenbaitetan: metodologia, gelako klima, gelako jarduerak...
- Alderdi psikosozialak: identitate etnolinguistikoa, jarrera, motibazioak...
- Norbanako ezaugarriak ere azpimarratzen dira beste zenbaitetan: autoestimua, konfiantza linguistikoa, inteligentzia...

Eredu gehienetan azpimarratzen diren alderdiak motibazioa eta jarrerarekin erlazionatutakoak dira, nahiz eta beti ez diren batera aztertzen. Gure testuinguruan ere identitateak garrantzia berezia hartzen du.

Bestalde, aipatu beharko litzateke ere azken ereduetan inportantzia handia ematen zaiola ikuspegi psikopedagogikoari. Alabaina, ez dira eredu asko aldagai kulturala oinarritzko faktoretzat hartzen dutenak hizkuntzaren erabilera azaltzeko, nahiz eta gure testuinguruan badakigun eragin hori nabarmena dela.


## **HIZKUNTZEN ERABILERA ETA KULTUREN PRAKTIKAK AZALTZEKO, PROPOSATZEN DEN EREDU PSIKO-SOZIO-LINGUISTIKO-KULTURAL-PEDAGOGIKOA**

Hizkuntzen erabilera eta kulturen praktika azaltzeko ikerketarako proposatzen dugun ereduak deskribatuko dugu ondorengo lerroetan. Proposatzen dugun ereduak (Berasategi, 2014), eskola testuinguruan dauden ikasleen (autoktonoen eta etorkinen) euskararen erabilera eta euskal kultur praktika azaltzea du helburu. Eredua ondorengo alderdi eta aldagai motengatik osatuta dago (1. Eredua):

1. Soziodemografikoak: sexua, ikasketa maila, ikastetxe mota, eredu linguistikoa, ikastetxeko etorkin proportzioa, jatorria, eta gurasoen maila sozioekonomikoa eta kulturala.
2. Linguistikoko kulturalak: hizkuntza gaitasuna, hizkuntza erabilera, kultura ezagutza eta kultura praktika.
3. Psikosozialak: harreman sarea, jarrera, motibazioa eta identitate etnolinguistikoa.
4. Psikopedagogikoak: 1) gelako klima: ikaskideekin harremanak eta afektibitatea: ikastetxean nola sentitu, poza bizitza pertsonalarekin eta EAEn bizitzearekin, jarrera klasean, emaitza akademikoak, gurasoen laguntza, eta 2) euskara eta euskal kultura lantzeko eskolan proiektua izatea.

Adierazitako lau alderdi hauetan jasotzen ditugun aldagaiak, eta hizkuntzen eta kulturen erabilera aldagaien artean, artekotasuna dagoela edo elkarreragina dutela, jakinda, nahiago izan dugu helburua azaltzeko, alderdi hauen artean ibilbide konkreturik ez adieraztea ikerketa aurretik, gure Ereduan, baizik eta hori lortzen dugun heinean emaitzetarako utzi.

**1. Eredua. Hizkuntza eta kultur portaerak azaltzeko, ikerketan erabilitako eredu soziodemografiko-psiko-sozio-linguistiko-kultural-pedagogikoa (HIKUP)**



## **METODOLOGIA**

### **I**

Ikerketa honetan, ikasleen praktika linguistikoak eta kulturalak nolakoak diren jakiteko asmoz, eta euskararen eta euskal kulturaren praktikan eragiten duten faktoreak aztertzearen, galdera ireki eta itxiez osatuta galdetegi bat erabili dugu, metodologia kuantitatibo eta kualitatiboan oinarrituz. Artikulu honetan, azterketa kuantitatiboko datu nagusi batzuk baino ez ditugu aurkeztuko, zehazki, ikasleen hizkuntza praktikak eta hizkuntza zein kultura praktikekin erlazionatzen diren aldagaien inguruko datuak eskainiko ditugu.

Ikerketa-lanerako erabili dugun galde-sorta atal teorikoan proposaturiko 1. Ereduan oinarrituta dago. Galde-sorta hau, aurretik Donostiako DBHko 2. maila eta 4. Mailako ikasleekin erabili da (Berasategi & Larrañaga, 2014; Larrañaga et. al, 2010).

Ikerketa honetako atal kuantitatiboa aztertzeko metodologia deskribatzailea eta korrelaziozkoa erabili da. Galdera ireki zein galdera itxien analisirako SPSS 20.0 programa erabiliz.

### **Lagina**

Ikerketa lan honen lagina Bilboko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. eta 4. mailako 989 ikasleek osatu dute. Datuak, 2010-2011 eta 2011-2012 ikasturtean zehar bildu dira. Ikasle hauen %53 mutila da eta %47 neska. %57 Derrigorrezko laugarren mailan ikasten dago eta %47 Derrigorrezko bigarren mailan. Ikasle horien gehiengoa, %62 ikastetxe publikora doa, %19 itunpeko-ikastolara eta %19 itunpeko-erlijiosora. Ikasleen gehiengo D erudian ikasten dago %57,4, %21,3 B erudian eta %15,1 A erudian. Ikasle horien gehiengoa erdibideko (%47,8) edo etorkin kopuru baxua duen ikastetxeetara doa (%37,9).

Ikasle horien jatorriari dagokionez, gehiengoa Bilbotarra da %81,5. Europako beste herrialde batetik datozenen kopurua %1,8koa da eta Europatik kanpo datozenen kopurua %12,8koa.

## **EMAITZAK**

### **I**

### **Zein hizkuntza erabiltzen dute ikasleek esparruz esparru, eta harremanik ba al da praktika horien eta jatorriaren artean**

Ikasleen praktika linguistikoaren eta jatorriaren artean harremanik baden egiaztatzeko, Khi karratuaren froga erabili dugu. Ikasleek jatorriaren arabera aipatutako lau esparruetan zein hizkuntza erabiltzen duten agertzen da 1. Taulan.

---

***Ikerketa honetan, ikasleen praktika linguistikoak eta kulturalak nolakoak diren jakiteko asmoz, eta euskararen eta euskal kulturaren praktikan eragiten duten faktoreak aztertzearen, galdera ireki eta itxiez osatuta galdetegi bat erabili dugu, metodologia kuantitatibo eta kualitatiboan oinarrituz.***

**1. Taula. Ikasleek hainbat esparrutan egiten duten hizkuntza, ikasleen jatorriaren arabera (I)**

		LAGIN OSOA	AUTOKTONOAK	ETORKINAK	c <sup>2</sup>
		N (%)	N (%)	N (%)	
Eskolan	Euskaraz	467 (51,2)	443 (57,5)	23 (17,2)	74,360***
	Espainieraz	443 (48,5)	326 (42,3)	110 (82,1)	
	Beste batean	3 (0,3)	2 (0,3)	1 (0,7)	
Eskolako atarian	Euskaraz	27 (2,8)	27 (3,4)	0 (0,0)	16,665***
	Espainieraz	914 (96,2)	772 (96,1)	133 (96,4)	
	Beste batean	9 (0,9)	4 (0,5)	5 (3,6)	
Familian	Euskaraz	87 (9,4)	85 (10,9)	2 (1,5)	111,039***
	Espainieraz	797 (85,8)	684 (87,4)	105 (76,6)	
	Beste batean	45 (4,8)	14 (1,8)	30 (21,9)	
Lagunartean	Euskaraz	43 (4,6)	43 (5,4)	0 (0,0)	27,344***
	Espainieraz	883 (93,9)	744 (93,8)	130 (94,2)	
	Beste batean	14 (1,5)	6 (0,8)	8 (5,8)	

\*\*\*p<0,001.

Lagin orokorrari dagokionez, esan daiteke ikasleek batez ere eskolan erabiltzen dutela euskara (%51,2), eta erabilera hori jaitsi egiten da eskolatik urruntzean garen heinean, eta espainieraren erabilera nabarmen igotzen da; %96,2k eskolako atarian espainieraz egiten du, familian %85,8k espainieraz eta %93,9k lagunartean espainieraz.

Taldeen arteko konparazioan (autoktonoak eta etorkinak) ikusten denez, autoktonoak dira euskara gehien erabiltzen dutenak; batez ere, eskolan erabiltzen dute euskara (%57,5). Gainerako esparruetan (eskolako atarian, familian eta lagunartean), nabarmen jaisten da euskararen erabilera, eta igo egiten da espainierarena. Etorkinen kasuan ere, eskola eremuan erabiltzen da euskara gehiago, nahiz eta honen erabilera baxua izan (%17,2). Aipatzekoa da, autoktonoen kasuan ere, euskararen erabilera hutsala dela, eskolaz bestelako esparruetan.

Beste hizkuntzei dagokionez, ikus daiteke familia dela arnagunea, eta bertan erabiltzen dituztela gehien hizkuntza horiek. Etorkinak dira, familia testuinguruan, beste hizkuntzak gehien erabiltzen dituztenak (%21,9). Familiatik kanpoko esparruetan erabilera hori behera egiten du. Hizkuntza horien erabilera zertxobait ageri da lagunartean (%5,8) eta eskolako atarian (%3,6), aldiz, erabilera hori nabarmen jaisten da eskolan (%0,7).

## Ikasleen euskararen erabilera eta euskal kultur praktika, eta aldagai desberdinen arteko harremana

Ikasleen euskararen erabilera eta euskal kultur praktika, eta aldagai sozio-demografikoak

Ikasleen euskararen erabilera, aukeratutako aldagai soziodemografikoen arabera desberdintasunik dagoen ikusteko, Kruskal-Wallisren froga eta Mann-Whitneyren U froga erabili ditugu (2. Taula).

**2. Taula. Ikasleen euskararen erabilera orokorra, aldagai soziodemografikoen arabera**

		LAGIN OSOA			AUTOKTONOAK			ETORKINAK		
		N	$\bar{U}$	$\chi^2 - U$	N	$\bar{U}$	$\chi^2 - U$	N	$\bar{U}$	$\chi^2 - U$
Sexua	Neska	436	3,51		374	3,65		59	2,63	
	Mutila	474	3,34	95347,500	398	3,49	68729,000	73	2,56	2056
Ikasketa-maila	2.maila	524	3,59	81514,000***	450	3,70	60176,000***	70	2,94	
	4.maila	389	3,18		322	3,38		64	2,2	13,287***
Ikastetxe mota	Publikoa	574	3,47		496	3,63		73	2,56	
	I-erlijioso	167	2,98	25,918***	105	3,19	11,239**	61	2,63	2195,000
	I-ikastola	176	3,64		175	3,64		-	-	
Eredu linguistikoa	A eredia	136	2,44		67	2,54		65	2,40	
	B eredia	196	3,58	120,720***	161	3,66	62,805***	34	3,06	14,90165**
	D eredia	536	3,64		517	3,70		3	3,11	
	X eredia	5	1,40		2	1,50		3	1,33	
Ikastetxeko etorkin kopurua	<% 5	352	3,75		345	3,75		6	3,33	
	% 5-40	441	3,40	89,275***	379	3,53	38,052***	57	2,70	3,688
	>% 40	124	2,53		52	2,67		71	2,44	
Amaren ikasketa-maila	IU	314	3,71		293	3,78		20	2,70	
	BAT	211	3,42		181	3,55		30	2,63	
	BM	204	3,09	36,461***	162	3,25	23,542***	41	2,49	2,626
	LM	51	3,24		34	3,41		17	2,88	
	IG	34	3,12		18	3,78		15	2,27	
Aitaren ikasketa-maila	IU	286	3,67		262	3,75		22	2,86	
	BAT	208	3,47		179	3,64		28	2,50	
	BM	206	3,16	36,461***	166	3,32	19,007***	38	2,55	1,894
	LM	84	3,05		60	3,22		24	2,63	
	IG	36	3,28		24	3,63		11	2,45	



Amaren lan mota									
GML	174	3,64		158	3,76		14	2,50	
MEL	228	3,64		208	3,71		19	3,05	
KG	184	3,26	26,287***	149	3,44	13,418	34	2,50	4,295
EA	218	3,16		165	3,38		53	2,49	
Aitarene lan mota									
GML	213	3,62		191	3,75		21	2,52	
MEL	215	3,53	13,960**	196	3,58	6,807	18	3,06	3,824
KG	298	3,30		241	3,50		56	2,46	
EA	60	3,10		41	3,32		18	2,56	

IG: Ikasketa gabe, LM: Lehen mailako ikasketak, BM: Bigarren mailako ikasketak, BAT: Batxilergo, IU: Ikasketa Unibertsitariak.

GML: Goi-mailako lanpostua, MEL: Maila ertaineko lanpostua, KG: Kualifikaziorik gabe, EA: Ez-aktiboa.

Oharra: Euskararen erabilera orokorra: 1etik 5erako Likert eskala.

\*\* $p < 0,01$  \* $p < 0,001$ .

Hala, esan daiteke Derrigorrezko Bigarren Hezikuntzako 2. mailan dauden ikasle autoktonoek euskara gehiago erabiltzen dutela 4. mailakoek baino. Itunpeko ikastoletan edo publikoan dauden ikasleek euskara gehiago erabiltzen dute, itunpeko erlijiosokoek baino. D ereduan dauden ikasleek erabiltzen dute gehien euskara, ondoren B ereduan daudenek, eta, azkenik, A ereduan ezer gutxi. Etorkinen %5etik beherera duten ikastetxeetako ikasleek erabiltzen dute euskara gehien. Gurasoen ikasketa-maila zenbait eta handiagoa izan, orduan eta altuagoa da seme-alaben euskararen erabilera. Azkenik, gurasoen lan motari dagokionez, goi mailako edo erdi-mailako lanpostuak dituzten gurasoen seme-alabek erabiltzen dute euskara gehien.

Ikasle etorkinen kasuan, euskararen erabilera dagokionez, desberdintasun esanguratsuak dira ondorengo alderdien arabera: ikasketa-maila eta eredu linguistikoa. Hala, Kasu horretan ere, Derrigorrezko Bigarren Hezikuntzako 2. mailan eta D ereduan dauden ikasle etorkinek erabiltzen dute euskara gehien. Aipatu behar da ikastetxe motari eta ikastetxeko etorkin kopuruari dagokionez, desberdintasunak ez direla izan esanguratsu, baina kontuan izan behar da ez dagoela aztertutako laginean ikasle etorkin Itunpeko-ikastolan eta gutxi direla ere etorkin kopuru baxuko zentroetan dauden ikasleak, eta horrek datuak esanguratsu ez izatean eragina izan dezake.

Ikasleen euskararen erabilera orokorra eta euskal-kultur praktika orokorra, eta aldagai psikosozial eta psikopedagogikoen arteko harremana

Euskararen erabilera orokorra eta euskal kultur praktika orokorra, eta aldagai linguistiko-kulturalen (euskararen ezagutza, euskal kulturaren ezagutza eta euskal kulturaren praktika), psikosozialen (harreman sareak, identitatea eta hizkuntza zein kulturarekiko jarrera eta motibazioa) eta psikopedagogikoen (poza bizitza pertsonalarekin eta EAEn bizitze-arekin, ikastetxean nola sentitzen diren, ikaskideekin duten jarrera, klasean duten jarrera, emaitza akademikoen gaineko balorazioa, gurasoek eskolako lanetan ematen dieten laguntza) artean harremana ote dagoen aztertzeko, Pearsonen korrelazioak burutu ditugu (3. Taula).

**3. Taula. Euskararen erabilera orokorra eta euskal kultur praktika orokorrarekin erlazionatzen diren aldagaiak ( $r \geq 0,400$ )**

EUSKARAREN ERABILERA OROKORRA		
LAGIN OSOA	IKASLE AUTOKTONOAK	IKASLE ETORKINAK
Euskararen ezagutza ( $r=,646^{***}$ )	Euskararen ezagutza ( $r=0,594^{***}$ )	Euskararen ezagutza ( $r=0,615^{***}$ )
Euskal kulturaren praktika ( $r=0,596^{***}$ )	Euskal kulturaren praktika ( $r=0,571^{***}$ )	Euskal kulturaren praktika ( $r=0,513$ )
Euskara ezagutu nahia ( $r=0,535^{***}$ )	Euskara ezagutu nahia ( $r=0,505^{***}$ )	Euskara ezagutu nahia ( $r=0,481^{***}$ )
Euskaldun sentitzea ( $r=0,468^{***}$ )		Euskaldun sentitzea ( $r=0,401^{***}$ )
Euskal kulturaren ezagutza ( $r=0,427^{***}$ )		
EUSKAL KULTUR PRAKTIKA OROKORRA		
LAGIN OSOA	IKASLE AUTOKTONOAK	IKASLE ETORKINAK
Euskal kulturaren ezagutza ( $r=0,594^{***}$ )	Euskal kulturaren ezagutza ( $r=0,568^{***}$ )	Euskal kulturaren ezagutza ( $r=0,537^{***}$ )
Euskararen erabilera orokorra ( $r=0,596^{***}$ )	Euskararen erabilera orokorra ( $r=0,596^{***}$ )	Euskararen erabilera orokorra ( $r=0,513^{***}$ )
Euskal kultura ezagutu nahia ( $r=0,549^{***}$ )	Euskal kultura ezagutu nahia ( $r=0,545^{***}$ )	Euskal kultura ezagutu nahia ( $r=0,407$ )
Euskararen ezagutza ( $r=0,596^{***}$ )	Euskararen ezagutza ( $r=0,571$ )	
Euskara ezagutu nahia ( $r=0,478^{***}$ )	Euskara ezagutu nahia ( $r=0,447^{***}$ )	
Euskaldun sentitzea ( $r=0,438^{***}$ )		
1etik 5erako Likert eskala. *** $p < 0,001$		

**Gurasoen ikasketa-maila zenbait eta handiagoa izan, orduan eta altuagoa da seme-alaben euskararen erabilera.**

**Ikasle etorkinen kasuan, euskararen erabilerari dagokionez, desberdintasun esanguratsuak dira ondorengo alderdien arabera: ikasketa-maila eta eredu linguistikoa.**

Euskararen erabilera orokorrarekin altuen erlazionatzen diren aldagaiak aztertutako taldeetan (lagin osoa, ikasle autoktonoak eta ikasle etorkinak), alderdi linguistiko-kulturalekin erlazionatuta daude. Euskararen ezagutza maila eta euskal kultur praktika dira euskararen erabilera orokorrarekin altuen erlazionatzen diren aldagaiak. Ondoren, jarrera alderdiekin erlazionatutakoak (euskara ezagutu nahia) eta identitatearekin erlazionatutakoak (euskaldun sentitzea) lirateke altuen erlazionatzen direnak euskararen erabilera orokorrarekin.

Euskal kultur praktika orokorrarekin altuen erlazionatzen diren aldagaiak aztertutako taldeetan (lagin osoa, ikasle autoktonoak eta ikasle etorkinak), alderdi linguistiko-kulturalekin erlazionatuta daude (euskal kulturaren ezagutza eta euskararen erabilera orokorra). Ondoren, jarrera alderdiekin erlazionatutakoak (euskal kultura ezagutu nahia).

Ondorioz, esan daiteke, bai euskararen erabilera orokorrean eta bai euskal kultur praktikaren kasuan, hizkuntzaren kasuan (hau da, euskararen erabilera orokorrean), hizkuntza horren ezagutzak, hizkuntza horren erabileran eragiten duela, eta alderantziz ere bai. Kulturaren kasuan ere, kultura horren ezagutzak kultura horren praktikan eragiten du, eta baita alderantziz ere. Hortaz, ezagutza eta praktikaren arteko harremana argia gertatzen da, bai euskararen kasuan eta bai euskal kulturaren kasuan.

Hizkuntza eta kulturaren arteko harremana ere argia da. Euskararen erabilera orokorrean, euskal kultur praktikak eragiten du. Era berean, euskal kulturaren praktikan euskararen erabilerak eragiten du. Hori dela eta argi geratzen da, kasu honetan ere, euskararen erabilera eta euskal kultur praktikaren artean dagoen zentzu biko harremana.

Jarrerazko alderdiak (euskara eta euskal kultura ezagutu nahia) ere garrantzitsuak dira, bai euskararen erabileran eta baita euskal kulturaren praktikan ere.


Aztertutako aldagai psiko-sozio-linguistiko-kultural-pedagogikoen artean, ikus daiteke bereziki alderdi linguistiko-kultural eta psikosozialen (jarrera eta identitatea) barruan aztertutako aldagaiak direla Bilboko Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako eta 4. mailako ikasle hauen euskararen erabilera orokorra, edo euskal kultur praktikarekin ere altuen erlazionatzen direnak. Hortaz, baieztatu egiten da, partzialki behintzat, 1. ereduan aurreikusten genuena. Alderdi psikopedagogikoan, euskara eta euskal kultura sustatzeko Proiektua da, hau duten eskoletan, eragin handiena duena euskararen eta euskal kulturaren ezagutzan eta erabileran ere.

1. Eredu honetan, aldagai sozio-demografiko-psiko-sozio-linguistiko-kultural-pedagogikoen parte hartzen dute euskararen erabilera eta

euskal kultur praktika azaltzeko nahiarekin. Hala, eredu horretan aurreikusten genuen jada aldagai linguistiko-kulturalak edo psiko-sozialak erabilera edo praktika horiek azaltzen lagunduko zuten alderdiak izango zirela. Korrelazioen bidez, ikusi dugu bereizki alderdi linguistiko-kulturalen garrantzia, baina honek ez du esan nahi beste aldagaiek ere euskararen erabilera edo euskal kulturaren praktikan eragiten ez dutenik, aurreko analisisetan aditzera eman den moduan.

Horrela, ikerketa honen arabera lortutakoa, ondoko 2. Eredu honetan jasotzen da: proposatzen dena ere bere aplikaziorako, antzeko testuinguruko hezkuntzan.

## 2. Eredua. Hizkuntza eta kultura praktikak azaltzeko, diziplinarteko eredia (HIKUDIE)



***Euskararen ezagutza maila eta euskal kultur praktika dira euskararen erabilera orokorrarekin altuen erlazioztatzen diren aldagaiak.***

***Jarrerazko alderdiak (euskara eta euskal kultura ezagutu nahia) ere garrantzitsuak dira, bai euskararen erabilera eta baita euskal kulturaren praktikan ere.***

## ONDORIOAK ETA EZTABAIDA

Ikerketa honetan parte hartu duten gazteak ez dira testuinguru oso euskaldun batean bizi (Bilbon). Gehienek ez dute etxetik euskara jaso, eta eskola bihurtzen zaie, kasu gehienetan, euskara ikasteko gune estrategiko eta eraginkor ia bakarra. Ikasle etorkinen eta autoktonoen

**Gure ikerketan ikusi dugu kultura ezagutza zein praktikak duen garrantzia hizkuntzen eta zehazki euskararen erabilerako. Baina eskoletatik egiten al dira jarduera eta programa zehatzak kulturak lantzeko?**

artean aldea nabaria da euskararen erabilerari dagokionez, azken horien kasuan nabarmen jaisten baita euskararen erabilera. Ikasle horientzat, era nabariagoan, eskola bihurtzen da euskararen erabilerako gune bakarra. Baina ikusi dugu eskolak bere mugak dituela, izan ere, eskolatik aldentzean, erabilera hori nabarmen jaisten baita. Euskararen erabilerak babesa duen gunean erabiltzen dute euskara gazteek, eta gune honetatik aldentzean, gizartean, eta kasu honetan Bilbon, nagusi den espainieraren erabilerara jotzen dute. Egoera horri aurre egiteko, garrantzitsua litzateke ikasleen euskararen erabilera bultzatzeko, eta ahozkotetasuna lantzeko, guneak zabaltzea, dauden solasaldi gunez baliatuz eta berriak sortuz, eta bide horretan, eskolaz kanpoko jarduerak izan daitezke jomugetako bat.

Eskolak duen euskalduntzeko ahalmena, etorkinen kasuan zaildu egiten da, izan ere guk aurkeztu ditugun datuek, zein aurretik egindako hainbat ikerketek ere, erakutsi dute, ikasle etorkinen euskararen ezagutza eta erabilera autoktonoena baino nahiko baxuagoa dela (Ibarraran & besteak, 2007; Etxeberria Eloseg, 2008). Hainbat ikerketak ere aditzera eman dute, aldagai sozio-demografikoek eragina dutela ikasle autoktono zein etorkinen euskararen erabileran (Etxague, 1994; Larrañaga, 1996; Arratibel, 1999; Garcia, 2001; Etxeberria & Eloseg, 2008; Arrue-ED, 2011...) besteak beste: eredu linguistikoak, ikastetxe motak eta ikastetxeko etorkin kopuruak duen eragina. Zentzu horretan, eta aztertutako laginean ikusi ahal izan dugun bezala, etorkinen kasuan gutxi dira D ereduari matrikulatuta daudenak, baita itunpeko-ikastoletara edo etorkin kopuru gutxiko zentroetara doazenak. Horren aurrean, garrantzitsua litzateke, eta honek duen eraginaz oharturik, egoera horri aurre egiteko neurriak jartzea.

Gure ikerketan ikusi dugu kultura ezagutza zein praktikak duen garrantzia hizkuntzen eta zehazki euskararen erabilerako. Baina eskoletatik egiten al dira jarduera eta programa zehatzak kulturak lantzeko? Galdera horri erantzutea litzateke lehengo pausoa, baina erantzuna ezezkoa den kasuetan, neurriak hartu beharko lirateke eta tokian tokiko programa zein jarduerak diseinatu. Bide horretan garrantzitsua izango da eskoletatik hizkuntza gutxituekiko zein kultura gutxituekiko begirunean oinarritutako gizarte eleaniztun baterako ikuspegia sustatzea.

Hizkuntza edo kulturen irakaskuntzarekin batera garrantzitsua izango da hizkuntza zein kulturekiko jarrera eta motibazio positiboak garatzea. Ikusi dugun bezala, jarrera eta motibazioak ere hizkuntzaren zein kulturaren praktikaren auresate garrantzitsu dira. Hortaz, garrantzitsua litzateke ere eskolatan jarrera eta motibazioaren gaia era planifikatuan jasotzea, eta curriculumaren barruan eduki beharko

lukeen tokia aitortzea, eta horiek gelan aurrera eramateko unitate didaktikoak sortzea, neurriren batean.

Bukatzeko, eskolako alderdiari eta alde didaktikoari eman nahi genioke ere bere garrantzia, jakina baita, metodologiak, ikasgelako jarduerak, gelako klimak, curriculumak ... eragina dutela hizkuntzaren erabileran (Gardner, 1984; Skehan, 1989; Allard & Landry, 1992; Gardner & MacIntyre, 1993; Etxague, 1994; Luque, 2004; Cummins 2005; Coelho, 2006). Bide horretan garrantzitsua izango da metodologia kooperatiboak, eta ahozkotasuna lantzerantz bideratuta dauden metodologiak erabiltzea. Garrantzitsua izango da ere, hezkuntza administrazioetik laguntza eskaintzea, beharrezkoak diren bitarteko, formazio eta aholkularitza eskainiz, eskolako hizkuntza proiektua benetako bitarteko baliagarri bat bihurtu dadin. Bestalde, ezinbestekoa izango da bide luze zein aberats horretan, komunitate guztiaren inplikazioa, eta bereziki guraso eta ikastetxe artean elkarkidetzat bultzatzea. ●

## BIBLIOGRAFIA

- Allard, R., & Landry, R. (1992). "Ethnolinguistic Vitality Beliefs and Language Maintenance and Loss". In W. Fase, K. Jaspaert, & S. Kroon (Eds.), *Maintenance and loss of minority languages* (pp. 171-197). Amsterdam: John Benjamins Publishing Co.
- Amorrortu, E., Barreña, A., Idiazabal, I., Izagirre, E., Ortega, P., & Uranga, B. (2004). *World Languages Review Studies*. Bilbo: Unesco Etxea.
- Arratibel, N. (1999). *Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psiko-sozialak: Motibazioen errola*. PhD thesis, University of Basque Country.
- Arrue-Ebaluzio Diagnostikoa 2011: *Ikasleen hizkuntza erabileraren datuak*. Eusko Jaurlaritza, ISEI-IVEI & Soziolinguistika Klusterra (2013). Retrieved 03/02, 2014, from [http://www.irekia.euskadi.net/assets/attachments/2802/Arrue\\_Prentsaurrekoa\\_eus.pdf?1359118341](http://www.irekia.euskadi.net/assets/attachments/2802/Arrue_Prentsaurrekoa_eus.pdf?1359118341)
- Azurmendi, M.-J., Romay, J., & Valencia, J.F. (1996). "Identidad étnica y relaciones intergrupales en el mundo hispanohablante". In R.Y. Bourhis, & J.-Ph. Leyens (Eds.), *Estereotipos, discriminación y relaciones entre grupos* (pp. 241-285). Madrid: MacGraw-Hill.
- Berasategi, N. 2014. *Hizkuntza eta Kultura aniztasuna Bilboko eskoletan. Euskararen erabileran eta euskal kultur praktikan eragiten duten faktoreak*. Doktore tesia, UPV/Euskal Herriko Unibertsitatea. [Argitaratu gabea].
- Berasategi, N., & Larrañaga, N. (2014). "Diversidad lingüística y cultural en el contexto educativo. Actitudes y prácticas". *Inguruak*, 61-69.
- Clément, R. (1980). "Ethnicity, contact and communicative competence in a second language". In H. Giles, W.P. Robinson, & P.M. Smith

---

**Bide horretan garrantzitsua izango da eskoletatik hizkuntza gutxituekiko zein kultura gutxituekiko begirunean oinarritutako gizarte eleaniztun baterako ikuspegia sustatzea.**

- (Eds.), *Language: Social psychological perspectives*. Oxford: Pergamon.
- Coelho, E. (2006). *Enseñar y aprender en escuelas multiculturales: una aproximación integrada*. Barcelona: ICE-Horsori.
- Cummins, J. (2005). "La hipótesis de la interdependencia 25 años después: La investigación actual y sus implicaciones para la educación bilingüe". In D. Lasagabaster, & J.M. Sierra (Eds.), *Multilingüismo y multiculturalismo en la escuela* (pp. 113-132). Barcelona: Horsori.
- Etxeberria, F., & Elozegi, K. (2008). "Basque, Spanish and Immigrant Minority languages in Basque schools". In J. Cenoz (Ed), *Teaching Through Basque. Achievements and Challenges* (pp. 69-85). Clevedon: Multilingual Matters.
- Etxague, X. (1994). *Nafarroako 8. mailako D ereduko ikasleen euskara errendimendua. Hainbat aldagai eskolarren eragina*. Bilbo: UPV/EHU.
- Fishman, J.A. (1991). *Reversing Language Shift (RLS). Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Garcia, I. (2001). *Euskararen erabileran eragiten duten prozesu psikosozialak: Identitate etnolinguistikoaren garrantzia*. PhD thesis, University of Basque Country.
- Gardner, R.C. (1985). *Social psychology and second language learning*. London: Edward Arnold.
- Gardner, R.C., & MacIntyre, P.D. (1993). "On the measurement of affective variables in second language learning II: Affective variables". *Language Teaching*, 26, 1-11.
- Hamers, J., & Blanc, M. (1983). *Bilingualité et Bilingualisme*. Bruxelles: Mardaga.
- Ibarraran, A., Lasagabaster, D., & Sierra, J.-M. (2007). *Inmigración y aprendizaje de lenguas en contexto bilingüe*. Lete.
- Lambert, W.E. (1974). "Culture and language as factors in learning and education". In F.E. Aboud & R.D. Meade (Eds.), *Cultural factors in learning and education*. Bellingham, Washington: Fifth Western Washington Symposium on Learning.
- Larrañaga, N. (1995). *Euskararekiko jarrerak eta jokabideak*. Euskalerriko gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzean. PhD thesis, University of Deusto.
- Larrañaga, N., Azurmendi, M.-J., Berasategi, N., & Etxepetleku (2010). "Aniztasun linguistiko eta kulturala euskal eskolan". *Inguruak*, 61-69.
- Luque, M.-Ll. (2004). *Adquisición-aprendizaje del euskara a través de la inmersión total precoz (2-4 años): Análisis psico-socio-lingüístico-pedagógico*. PhD Thesis, University of Basque Country.

- Mackey, W.F (1976). *Bilingualism et contact des langues*. Québec: CIRB.
- Martinez de Luna, I., & Suberbiola, P. (2008). "Measuring Student Language Use in the School Context". *Language, Culture and curriculum*, 21, 1, 59-68.
- Naiman, N., Förhlich, M., Stern, H.H., & Todesco, A (1978). *The Good Language Learner*. Toronto: Ontario Institute for Studies in Education, Research in Education Series, 7.
- Sánchez Carrión, J.M., "Txepetx" (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves para la recuperación del euskara y la teoría social de las lenguas*. Donosita: Elkar.
- Skehan, P. (1989). *Individual Differences in Second Language Learning*. London: Arnold.
- Skutnabb-Kangas, T. (2000). *Linguistic Genocide in Education or Worldwide Diversity and Human Rights*. Londres: L. Erlbaum Associates, Mahwa.
- Uranga, B., Aierdi, X., Idiazabal, I., Amorrortu, E., Barreña, A., & Ortega, A. (2008). *Hizkuntzak eta Immigrazioa. Lenguas e Inmigración*. Bilbo: Ikuspegi, UNESCO etxea, UPV/EHU.